

KILIMATERIOA

Bakarrizketak:
Kaitin Allende

Bertsolariak:
Oihane Perea
Irati Anda
Iratxe Ibarra



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ESA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



KILIMATERIOA

Bat-bateko bertsoak eta bakarrizketa

SINOPSISIA



Kaitin Allendek sortutako *“Klimaxetik klimateriora eta buelta”* (Komendialdia jaialdiko txapelketako irabazlea) bakarrizketatik sortu da **KILIMaterioa**.

Zer gertatzen da emakumearen bizitzan klimaterioan sartu eta menopausia ate joka dagoenean? Nola sentitzen gara? Alboan duguna akabatzeko moduan gaude. Suminkortasunez beteta abanikoen erreginak bilakatzen gara. Eraldaketa prozesu honek bestelakoak ere ematen dizkigu.

KILIMaterioak klimaxera iristeko autopista bilatzen ari denean klimaterioarekin topo egiten duen emakumearen ibilerak kontatuko ditu, bakarrizketa eta bertsoak uztartuz elkarriketara bidea egiteko.


Emakume helduak oholtza gainean, sortzaileak, sorginak, bakoitza egoera eta ziklo desberdin batean murgilduta gaiari umorez eta konplexu gabe heltzeko gogoz.

Estreinaldi ederra izango da saio bakoitza, jolasak eta inprobisazioak lagundutako akelarre txiki bat.



FITXA ARTISTIKOA

- GIDOIA: Kaitin Allende
- ZUZENDARITZA:
Kaitin Allende
- PARTAIDEAK:
Kaitin Allende + bi bertsolari:
Iratxe Ibarra
Oihane Perea
Irati Anda



FITXA TEKNIKOA

- NORI ZUZENDUA: gazte eta helduak
- ESPAZIOA: Oholtzan zein lurrean.
Espazio minimoa 6 x 4 m.
- LEKUAK: kultur etxeak, liburutegiak,
leku bilduak...
- IRAUPENA: 60 min.
- MUNTAIA: emanaldia hasi baino 30 min
lehenago iritsiko da
- DESMUNTAIA: 30 min.
- AURREKONTUA:
1.485€ + BEZ (%21).
Soinuztapen zerbitzua aparte.

OIHANE

PEREA PEREZ DE MENDIOLA

(Gasteiz, 1977)

Gasteizen jaio eta Arabako Lautadan ondutako bertsolaria da. Arabako bertso mugimenduan irakasle, eragile eta sortzaile lanetan darama bizitzaren ia erdia. Bestelako esperimentuak ere maite ditu: *Emetik* bertso kabareta (2006-2007), *Ertzetik* bertso saio musikatuko partaidea (egun biran).

IRATI ANDA VILLANUEVA

(Gasteiz, 1982)


Gasteizen jaioa eta mundu zabalean saltsa ezberdinetan ibilia, batez ere eskalatzen. 13 urterekin hasi zen bertsolaritza munduan mugitzen eta boladaka plazetan ibiltzen da. EITBn, irrati zein telebistan, hainbat kolaborazio egin izan ditu. Gaur egun hitzaldiak ematen ibiltzen da eskolaz eskola eta Arabako Bertsozale Elkartean egiten du lan.

IRATXE

IBARRA FORURIA

(Markina-Xemein, 1974)

Euskal Filologian lizentziatutako markinarra. Irakaskuntzan ibili ostean, euskara teknikari dabil orain. Hamabi urterekin hasi zen bertsolaritzan, Jon Lopategiren gidaritzapean. Bilbon ikasten ari zela, Santutxuko bertso eskolan jarraitu zuen bertsoa lantzen, egun Markina-Xemeingo bertso eskolako kide da. *Emetik* bertso kabareteko kide izan zen (2006-2007). Bertsoaz gain kirola ere oso gogoko du.





KAITIN ALLENDE ZALDUNBIDE

(Arrasate, 1972)

Umorigilea, Komunikazio alorrean lanean ari da EITBko Gasteizko egoitzan. Bere iritziz bizitzan ez dago mugarik.

Egun “*Stand-up Comedy*” ikuskizuna du eskuartean, batzuetan bakarkabestetan lagunduta. 2021ean *Komedialdia* Umore Jaialdian lehen saria irabazi zuen.



KONTAKTUA

Marta Agirrezabala Zubillaga

Marketina eta Komunikazioa

marketina@lanku.eus

675716472 - 943 26 07 55

www.lanku.eus